

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	NATURAGUNEETAKO ETA LANDA-EREMUETAKO ERABILERA PUBLIKOAREN KONTROLA	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF1261		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Erabilera publikoko jarduerak eta natura-ingurunearen babesa	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko kudeaketa-prozedurak.	Iraupena	70
	Hondakinen eta/edo isurien kontrola eta zaintza		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0083_3 NATURAGUNEAK ETA HAIEN ERABILERA PUBLIKOA KONTROLATZEA ETA ZAINZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Natura-inguruneko aisialdi- eta hezkuntza-jardueren segimendua egitea.

- E1.1 Baimendutako aisialdi-jarduerak zein diren ezagutzea.
- E1.2 Ingurumen-heziketako eta ondare-interpretazioko oinarriko jarduerak egitea.
- E1.3 Natura-inguruneko aisialdi-jardueren segimenduak eta kontrolak egitea.
- E1.4 Natura-ingurunean egindako aisialdi-jarduerak sortutako eraginak identifikatzea eta haien berri ematea.
- E1.5 Natura-ingurunean aisialdi-jarduerak egiteko zer baimen dauden egiaztatzea.
- E1.6 Natura-ingurune bateko aisialdi-gune baten egoerari buruzko txosten bat egitean:
 - Aisialdi- eta hezkuntza-azpiegituren eta ekipamenduen egoera eta erabilera ezagutzea.
 - Txosteneko atal bakoitza argi adieraztea.
 - Jasotako informazioaren oinarri den laguntza-materiala eranstea.
 - Egiten ari diren erabilera publikoko lanak, azpiegiturak eta ekipamenduak gainbegiratzeko.

A2: Ingurunean aisialdirako dauden zerbitzuak, ibilbideak eta eraikinak identifikatzea.

- E12.1 Natura-ingurunerako egokienak diren eraikuntza-materialak zehaztea.
- E12.2 Aisialdi- eta hezkuntza-erabilerarako natura-inguruneko azpiegituren eraikuntza eta erabilera arautzen duen araudia erabiltzea.
- E12.3 Natura-ingurunean aisialdi- eta hezkuntza-erabilerarako dauden ekipamendu-motak ezagutzea.
- E12.4 Bide- eta ibilbide-sareak gainbegiratzeko eta zabaltzeko.

A3: Informazio- eta orientazio-teknikak erabiltzea naturaguneetako bisitariekin.

- E13.1 Hitzezko, hitzik gabeko eta idatzizko komunikazioko teknikak erabiltzea bisitariekin, unean dauden zonei buruz informatzeko.
- E13.2 Komunikatzeko trebetasunak aplikatzea, bisitarien ezaugarrietara egokituz.
- E13.3 Kontrolak egitea, bisitari-talde txikiak gidatzea, eta, behar izanez gero, aholkuak ematea.
- E13.4 Ezarritakoaren arabera jardutea kontsulten, erreklamazioen eta bestelako kasuetan.
- E13.5 Bisitari-talde bat orientatzeko eta informatzeko kasu praktiko batean:
 - Bisitarien eskaerei, zalantzei, kexei eta bestelako erantzutea, komunikazio-teknikak aplikatuz.
 - Taldearen ezaugarriak identifikatzea:
 - Emandako informazioa jasotzen dela eta ondo interpretatzen dela ziurtatzea.
 - Ingurunearen alderdirik garrantzitsuenei buruz informatzea, noranzko biko komunikazioa sustatuz.

A4: Istripurik gertatuz gero, lehen laguntzako neurriak aplikatuz.

- E14.1 Lesio-sintomak eta -zeinuak ezagutzea.
- E14.2 Istripu-kasuetan jarduteko behar diren tresnak bereiztea.
- E14.3 Osasun-laguntzak aplikatzeko zehaztasunez jardutea.
- E14.4 Aisialdi-zona bateko istripu-kasu praktiko batean:
 - Sortutako lesio-mota identifikatzea (ebakia, erredura, etab.).
 - Asistentziarako behar diren materialak adieraztea.
 - Ebakuazio baterako neurriak, baliabideak eta bideak identifikatzea.
 - Behar diren lehen osasun-laguntzak aplikatzea, laguntza jaso duenaren asistentzia eta segurtasuna ziurtatuz.

Edukiak

1. Erabilera publikoko jardueren segimendua eta kontrola.

- Aisialdi-erabileraren kontzeptua. Jarduerak. Esku hartzen duten profesionalak eta hartzailak.
- Bisitariak eragindako inpaktuak: motak eta ondorioak.
- Naturagune baten karga-gaitasuna bisitari-olde baten aurrean.
- Ingurumen-heziketa eta ondarearen interpretazioa.
- Natura-inguruneko aisialdi-jarduerak arautzea.
 - Natura-ingurunearen aisialdi-erabileraren sektorekako plangintza.
 - Enpresa eta partikularrentzako baimenak.
- Natura-inguruneko aisialdi-jardueren segimendua.
- Gune babestuetara edo balio ekologikoa duten guneetara joaten den jende-kopurua kontrolatzea.
 - Jardueren zainketa.
 - Inpaktuak baloratzea eta haiei buruzko informazioa ematea.

2. Natura-ingurunean erabiltzen diren azpiegituren eta ekipamenduen identifikazioa.

- Natura-inguruneko aisialdi-erabilerarako azpiegiturak.
- Azpiegitura-motak: natura-gelak, kanpamentuak, aisialdirako zonak eta abar.
- Obra zibila: eraikuntza-motak eta erabiltzen diren materialak.
- Azpiegiturak eraikitzeke baimenak.
- Naturaguneen erabilera publikoa arautzeko araudia.
- Ekipamenduak. Definizioa. Ezaugarriak. Motak.
- Erabilera publikorako bideen eta ekipamenduen seinaleztapena. Ereduak. Funtzioak. Araudia.
- Bide gidatuak eta autogidatuak. Haien zailtasunaren arabera. Haien luzeraren arabera. Haiei lotutako ingurumen-heziketako baliabideen arabera.
- Homologatutako bideen sarea.

3. Komunikazio-teknikak ezagutzea.

- Eragileek komunikatzaile gisa duten papera.
- Komunikazioko elementuak.
- Komunikatzailearen jarrerak eta trebetasunak.
- Komunikazioko bitarteko materialak.
- Komunikazio-trebetasunak.
- Bisitariak informatzea eta haiei arreta ematea. Taldeak kontrolatzea eta gidatzea. Taldeei aholkuak ematea.

4. Lehen laguntzako tekniken aplikazioa

- Natura-inguruneko istripu-motak: eroriak, ebakiak, erredurak eta izozketak, besteak beste.
- Lehen laguntzak: kontzeptua eta ezaugarriak.
- Istripu-kasuetan jarduteko prozedura:
 - hausturak, bihurrituak eta luxazioak, besteak beste.
 - Erredurak.
 - Izozetak.
 - Bero-kolpeak, zorabioak, konortea galtzea.
- Osasun laguntzarako materialak: hesgailuak, aposituak eta desinfektatzaileak, besteak beste.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.